

## FUNTZEZKO JARDUERA



Guk, **zerbitzu bat eskaintzen diegu** pertsoneri, horregatik, gure funtsezko jardueren artean, garrantzitsuena da guretzat bezeroen beharrian batzuei aurre egitea, izan ere, haiek dira gure enpresaren punturik inportanteena.

Gure helburu garrantzitsuenetako bat, bezeroak haien artean ezagutzea eta jende berriarekin elkartzea izango litzateke. Uribe Kostan ez dugunez honelako lekueren bat, guk esakiniko dugu harreman haiek sortzeko leku apropos eta segurua. Izan ere, gure negozio ideia ezagutzaren gestioan oinarrituta baitago.

Lehenago esan dugun moduan, **espazio anitza** izango denez, gauza ezberdinetarako lekua izango da; jaialdi egunetarako, institutoko jaialdiak antolatzeko, kurtso amaierako festetarako edota egun seinalatuetan. Adibidez, gabonetan, halloween-en egunean, etab. Gauzak horrela, inguruko institutu ezberdinek nahi/behar dituzten gauzetara moldatzeko aukera izango dute gure diskotekaren baitan.

Lehenik eta behin, jaialdi egunak gehiengoak izango dira gure diskotekan (hori uste dugu). Hauek, batez ere, asteburuetan izango dira; ostegunetan, ostiraletan eta larunbatetan. Egun hauetan, nahi duten pertsona sartu daitezke gure diskotekan, NANaren bitartez eta sarreraren bitartez (hauxe hatz markarekin ere egin daiteke). Adin nagusiko jendea, ostegunetan eta larunbatetan joan daitezke, adingabeak (16-18 urte bitartekoak), aldiz, behin bakarrik joan daitezke, ostiraletan. Egun hauetan, ez dira edari alkoholikoak salduko, adingabeak baitira.

Aldiz, jai egunetan edota jaialdi ezberdinak antolatzen ditugunean, adingabeak ezingo dira sartu gure diskotekan, adin nagusientzako egongo da zabalik. Adibidez, gabon jaietan, halloween gauan, etab, adin nagusientzako jaialdiak izango dira, ez ditugu adingabeak eta adinekoak elkartu nahi, hortaz, aipatutako moduan, adingabeak, ostiraletan sartu daitezke bakarrik.

Instituto batzuekin aliatuko gara haien jaialdi bereziak egiteko, adibidez, kurtso amaierako jaialdia egiteko, gure diskoteka alokatu dezakete astean zehar. Ezin izango dute ostiraletan edo larunbatean alokatu, izan ere egun hauetan, diskoteka "publiko" egongo delako. Alokatzekotan, haien nahiak adierazita, gure lokala moldatuko dugu ahal dugun moduan, haiek ahalik eta gehien disfrutatzeko.

Adibidez, Plentziako Uribe Kosta BHI institutoarekin harremanak izango ditugu beraien jaialdiak bertan egiteko; adibidez, graduazioak, 2.batzilergoko eta eta 4<sup>o</sup> mailako graduazioak hain zuzen ere.

Kontaktua, zuzendariarekin egingo dugu, baita bertako ekintzen arduradunekin harremanetan jarriko gara. Jaialdi hauek anotaltzeko, ikasleek dirua biltzeko eta haien ideia sortzen lagunduko diegu gero guri aurkezteko eta diskoteka apaintzeko. Haien arauak eta eskakizunak beteko ditugu.



Lehenago aipatu dugun moduan, gure diskotekaren ezaugarri bat **bertara sartzeko hatz markaren erabilera** da. Gure ideia, hatz markarekin sartzea, edariak ordaintzea eta takilak erabiltzea da. Hau erabili baino lehen, aplikazio bat deskargatu behar izango dute, LAHEI aplikazioa. Bakoitzak bere datuak sartu beharko ditu, sarreran, atezainari NANA erakutsita. Atezainak izen abizenak bilatuko ditu, eta hor, hatza jarritz, tabletan, hatz marka gordeko da. Gero, diskotekatik ateratzerakoan, berriz sartzeko, takilak alokatzeko, ordaintzeko (edariak edota barruko merchandisinga) erabiliko da hatz marka. Hatz markaren erabilerarekin, bertaratzen diren bezeroek ez dute diru fisikorik erabili behar izango. Horrela, momentu huez gozatzeko aukera paregabea izango dute. Honekin batera, bakoitzak nahi duen diru kantitatea sartu dezake bere kontuan, horrela diru guztia ez gastatzeko, izan ere, hau, aukera bat da eta ez da derrigorrezkoa